

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERNEDOKO UDALA

Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko 2016ko zergaren bilketa

Nik, Ana Villasante Ruiz de Arcautek, Bernedoko Udaleko alkatea, honako hau jakinarazten dut:

2016ko urriaren 6tik aurrera ordaindu ahal izango direla borondatezko epean ondoko zergaren 2016ko ordainagiriak:

Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga

I. Ordaintzeko epea

A) Borondatezko epea 2016ko urriaren 6tik abenduaren 6ra izango da.

B) Betearazte aldia: 2016ko abenduaren 7tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu behar dira, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako zergen orokorrak, adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua

A) Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek, udalean eskatu ahal izango dute.

III. Gomendioak

Nola bankuko helbideratzeen altak edo aldaketak, hala helbide aldaketak, gerora jakinarazpenak egiteko, Bernedoko Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Bernedo, 2016ko irailaren 7a

Alkatea

ANA VILLASANTE RUIZ DE ARCAUTE